

Argitaletzeko koordinatzailea
Aurelio Erdozain
Egilea
Lur Gallastegi

Azala eta marrazkiak
Alai Zubimendi Idarreta

Bildumaren diseinua eta maketazioa
Luis Alonso

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debekatuta dago testu osoa edo zati bat informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiaren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

ITSASARGIKO MISTERIOA

© Testua: Lur Gallastegi
© Marrazkiak: Alai Zubimendi
© Goazlen: EITB
© Alai argitaletxea S.L., 2022



Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

ALAI ARGITALETXEA, SL
alai@alai.eus
www.alai.eus
ISBN: 978-84-125345-1-1
Lege-gordailua: D 1205-2022
EBn inprimatua - Printed in EU.



ITSASARGIKO MISTERIOA

Lur Gallastegi

Marrazkiak: Alai Zubimendi Idarreta





1


Asteak ziren Basakabiko lagunek elkar ikusten ez zutela. Berriz batzeko gogoz, asteburu pasa egitea bururatu zitzaien, udazkeneko lehen ilargi betearekin batera. Itsasargi batean igaroko zuten gaua.


Ondoko herrian erosketak egiten ari zirela, festak zirela ikusi zuten kartel batean.

—Hara! Zetak taldearen kontzertua dago eta!!!

—Maddiri izugarri gustatzen zitzaion talde hura.

—Kontzertura joan aurretik, bainu bat hartzera jaitsiko gara, ezta? —Garazi ideia harekin ze-





PASABIDEAK


BASOA

HERRIA

IRLA

ITSASARGIA

KOBAZULOAK



goen hasieratik. Dendatik irteteen, emakume bat hurbildu zitzaien. Halaxe esan zien:


—Gauean hondartzara joan nahi duzuela entzun dizuet —hasi zitzaien—. Ni ez nintzateke joango, zuek banintz.

Denak hari begira geratu ziren, harrituta.

—Ikusten al duzue hortxe parean dagoen irla? —irla txiki bat ikus zitekeen, badiaren bazter batean—. Herrian, bertako harkaitzetan emakume bat bizi dela esaten da. Ilargi beteko gauetan hondartzara joaten omen da, eta itsasoan ikusi izan dute. Mutiko bat harekin egoten dela ere esaten da. Oso arriskutsua dela diote. Lamia antzeko izaki bat dela dioenik ere badago... baina ikusi dutenetan, hankak estaltzen zizkioten arropak zeramatzan.

Zur eta lur geratu ziren guztiak.

—Eta badago beste zerbait —jarraitu zuen emakumeak—. Haur batzuei susto ikaragarria eman zien behin zuhaitz baten atzetik agertzean. Horren ondoren herriko batzuk joan ziren, eta



zuhaitz haren lur azpian hezur batzuk topatu zitezuten.

Izututa utzi zituen hark esandakoak. Junek lbairi begiratu zion. Berehala ulertu zuen mutilak, Junek ez zuela gauean hondartzara jaitsi nahi.

Erositakoekin, mendian gora abiatu eta hantxe ikusi zuten itsasargia. Toki misterioetsua zirudien. Garazik ostiko batez ireki zuen atea.

—Nola ezagutu zenuen leku hau? —galdetu zion Iraiak.

—Adingabekoen zentrotik ihes egin nuen aldi horietako batean, honaino iritsi nintzen.

Ohe zahar batzuk ikus zitezkeen bertan, bata bestearen ondoan jarrita. Janaria egiteko su txiki bat ere bazegoen. Eta pareta biribil hartan, antzinako piano bat. Maddiri berehala joan zitzaizkion begiak haraxe.

—Primeran pasatuko dugu! —bota zuen Unaxek—. Ideia paregabea izan da hona etortzea!

Garazi ez zegoen bere onenean, ordea. Hasierako plana, Lukenekin joatea zen. Adingabeen

